



Fun dantz! kale kultur adierazpen artistikoak taularatzea helburu duen jaialdia da, irekia eta partehartzailea. Gazteek egina eta gazteentzat zuzendua.

Martxoaren 8an Aretxabaletako kiroldegian kale kultur modalitate ezberdinak ikusgai izango dira: Breakdance, Hip Hop, BMX (bizikletarekin akrobaziak), Mc (rap abeslariak) DJak... eta batez ere kale-dantza modalitate ezberdinak. Jaialdiak hiru atal nagusi ditu: Ikastaroa, txapelketak eta ikuskizun nagusia.

Egitaraua

16:30ean kiroldegiko aerobic aretoan **Hip-Hop dantza ikastaro irekia** buruko da. Silvia Palacios iruindarraren eskutik. Bertan Hip-Hop dantza eginez ondo pasatzeko gaitasun berezirik ez dela behar erakutsiko da.

17:30etatik 18:30etara bakarka eta bikotekako **breakdance lehiaketa**. DJ ezberdinen erakustaldiekin batera.

- 2vs2 nesken arteko kale-dantza txapelketaren finalaurrekoak. Bikoteka.
- 1vs1 buruz buruko breakdance txapelketaren finalaurrekoak.



19:00etan **FUN DANTZ! IKUSKIZUNA**. Eszenatoki nagusian.

Ikuskizunean iraupen laburreko 16 show taularatuko dira eta 80 artista inguruk parte hartuko dute. Ikuskizunean lehiaketak eta erakustaldiak tartekatuko dira.

• **Taldekako Kale Dantzen Txapelketa.**

Hamaika taldek parte hartuko dute. Euskal Herriko hainbat tokitik etorriak Bilbo, Irun, Gasteiz, Donostia, Iruñea...

Banbboo

K-conexion

Fusion Noise

Double X Ladys

Alehop

Black Diamond Crew

Rest-style crew

Urban Dölls

Golden Funk

cLäSS Dance Crew

ED Steps



Lehiaketa honi dagokionez, sari nagusia BreakOnStage 2014 jaialdi nagusian parte-hartzea izango da 4000 ikusleren aurrean eta eszenatoki ezin hobean. 11 talde hauetatik 3 taldek izango dute Martxoan 29an Bilbao Arenan egoteko aukera.

Gainontzeko lan txukunak diruz sarituak ere izango dira.

- **CIRCLE OF TRUST** breakdance taldea.

Espainiar Estatuko breakdance talderik onena da. Maila internazionalen ere txapelketa onenetan parte hartzen dute. Breakdance 3 saio eskainiko dituzte.



- **BMX Flatland. Neugma**

Neugma artistak eszenatoki gainean bizkikletarekin akrobazia ikusgarriak burutuko ditu musikaren erritmora.



- **CYR WEEL. Vento**

Vento-ren "Cyr Wheel" deritzon disziplina akrobatiko show-a. Uztai erraldoi batekin egindako akrobaziak breakdance-arekin konbinatzen ditu.



- **1vs1 Breakdance txapelketaren finala**

- **2vs2 nesken arteko kale-dantza txapelketaren finala.**

- **Dj-ak, Mc-ak, VJ...**

Sarrera aldez aurretik Arkupe Kultur Etxean erosita 2€, bertan 3€.



Aretxabaletako
Udala